

+

Bilbao'tik, 1931'garango Epailaren 7'garanean.

Eafitte jaun aphez agurgariari.


Jauna ta adiskidea:

Esker aunitz "Gu-  
re Heia"n ene itzulpenari eman diozun merezi gabeko go-  
resteagatik. Zuri-neri-untzia edo intsentsu-<sup>thurikulun</sup>untzia geisiko  
altxatu duzu, neholaz ere, dituen onak adiaraztean; makarak  
adieraztean, aldiz, labur baino laburago gelditu zara. Mis-  
tral'ek barkatzen ahal dit, len baino lehen egiteagatik has-  
naska hari izana naizelako. Lenagorik hestu hestu, ta atzen  
-egunetan oppraldia sortu zen, eta nik urte barnean eman e-  
gin nahi.

Delako "poema nagusi" hori hastapenetan dut orai-  
no. Gaia bai ugari edo ausarki; bainan astia, edo beta gutisiko.  
Analak eginen ditut, zu bezalako eskualdun on aunitzen itxa-  
ropena edo igurikipena hutsean ez uzteko.

Artzara eskerik beroenak emanaz, adiskide gelditzen nuzu.

Ormaetxea'tar Nikola



Saubion'dik, 2-V-42.

Piarres Lafitte jaunari. Larresororat.

Agur, adichkidea:

Ikusatzu, othoi, lerro horiek AINTZINA delako ilhabetnekari hortan chokoren bat merezi othe duten. Bizpahirur artikulu igorri netzake Bergson'en "L'évolution créatrice" delako hortaz, eta eskuara errech errechez.

Ez othe dautate AINTZINA urrurik igorriko, hobeki erran, nere artikuluen ordainez? Orai artekoak atseginekin ikhusiko nituke.

Bizi naiz eta bakhe gochoan bizi Landes'etako zelhai huntan.

Ez gare biok helgarrenganik hurrun, baina oker egiten zaku helgar ardurara ikhusteko.

Hurbilena artio.

KASKOINA.

(Lehen ORIXE)

Enegant zuzenbidea:

Mr. Nicolas Ormaetchea.

Presbytère.

SAUBION.

(Landes).